

Jauzi, Euskal Dantzak ikasteko App-a.

Jauzi, osotasunean euskaraz garatutako Euskal Dantzak ikasteko App-a

- App-ak Jauziak dantzatzen ikasteko aukera ematen du, urratsez urrats eta zure erritmoaren arabera, bideo eta irudien bidez.
- Aplikazioa dohainik eskura daiteke Android eta iOS plataformetarako, euskaraz.

Bilbon, 2015eko azaroaren 23an

Jauzi App-ak Jauziak dantzatzen ikasteko aukera ematen du, urratsez urrats eta zure erritmoan, bideo eta irudien bidez, eta mugimendu bakoitza bere aldetik sakondu ahal izango duzu.

Ikasi nahi duzun urratsa hautatu, nahi duzun guztietan bideoa ikusi, eta mugimendu bakoitza imitatu ezazu. Dantza eta urratsak zailtasunaren arabera sailkatuta daude, pixkanaka eta zure erritmoan ikas dezazun.

Urratsez urratseko entrenamendua eskaintzeaz gain, aplikazioak dantza oso baten musika entzuteko aukera ematen du, ahots batek urrats bakoitza iragartzen duen bitartean, erraztasunez dantzatu dezazun, urrats guztien segida buruz ikasteko beharra eduki gabe.

Denborarekin, dantzak osorik ikasiko dituzu. Urratsak menderatzean, gai izango zara ezagutzen diren Jauzi guztiak nahi duzun lekuan dantzatzeko.

Jauzi ohitura eta dibertsioa da. Euskal dantza herrikoi hau ikas ezazu, erraztasunez, urratsez urrats eta zure erritmoan, eta zuk bakarrik, lagunekin edo senideekin dantzatzeko aukera izango duzu. Herriko jaietan edo nahi duzun lekuan praktikatu ezazu.

Proiektua Worköholics agentziak (komunikazio eta proiektu digitalen agentzia) sortu eta garatu du, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hizkuntza politika sailburuordetza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan du.